

'NAFARKARIA' ZER IZAN ZEN

Euskaldunon Egunkariak sortu eta hamaika urtez banatu zuen Nafarroarentzako kultur eta informazio orokorreko gehigarria izan zen *Nafarkaria*. 1991ko abenduaren 6an kaleratu zen lehen zenbakia, hau da, euskarazko egunkaria sortu eta urtebetera, eta azkena 2002ko uztailaren 26an argitaratu zen.

Gehigarria ostiralero ateratzen zen, eta *Egunkariarekin* batera banatzen zen, baina Nafarroan bakarrik. Zortzi orri izan zituen sortu zenetik amaierara arte, eta bertan kultur berriak, asteko kronikak, erreportaje zabalak, elkarrizketa nagusiak, hainbat lagunen kolaborazioak eta sail finkoak izan zituen, garaien arabera.

Gehigarriak Nafarroako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzaren diru laguntza jaso zuen hasieratik, nahiz eta laguntzak hainbat gorabehera izan zituen garaien arabera. 2001eko deialdian, baina, *Nafarkaria* diru laguntzen deialditik kanpo utzi zuten Nafarroako Hizkuntza Politikako arduradunek.

Kalean izan zen hamaika urte horietan, Nafarroako euskal sortzaileentzako erreferentziazko gehigarri bilakatu zen, plaza zabala eta askotarikoa izan baitzen beti. Esan daiteke euskal literaturgile nafar ia denek parte hartu edo idatzi zutela *Nafarkarian*, eta esan daiteke, gainera, haietarik askok lehen urrats idatziak bertan eman zituztela.

Kolaboratzaileen artean izan ziren, besteak beste, Josetxo Azkona, Aingeru Epaltza, Felipe Rius, Pello Lizarralde, Jon Alonso, Patziku Perurena, Mariano Izeta, Juanjo Olasagarre, Juantxo Urdirutz, Matias Mujika, Asisko Urmeneta, Jokin Muñoz, Inma Errea, Joxemiel Bidador, Juan Kruz Lakasta, Patxi Huarte, Maite Ubiria, Aritz Agirre, Mikel Reparaz, Mikel Taberna, Gontzal Agote, Aritz Ibañez...

Baina, egileen zerrendaz harago, *Nafarkaria Euskaldunon Egunkariako* lehen gehigarri iraunkorra ere izan zen, euskal kazetari hurbiltasun berezia eman zion lehena, eta Nafarroako zein beste herrialdetako irakurleen estima handia bereganatu zuena. Haren orrietan mamitu ziren Joxemiel Bidadorren asmoa, idazle klasikoen berezitasunak biltzeko; Patziku Perurenaren ahalegina, bere mundua deskribatzeko, edo Juan Kruz Lakastaren afana, Iruñeko giroa marrazteko.

Nafarkarian argitaratutako komikiei esker Patxi Huartek Rikardo Arregi Saria jaso zuen 1994an, eta Josetxo Azkonak sari bera irabazi zuen handik hiru urtera, *Marta* izeneko zutabeagatik. Felipe Riusek *Nafarkarian* argitaratutako zutabeekin *Bi argazki eta hainbat polaroid* liburua karrikaratu zuen 1999an. Gehigarrian kaleratutako artikulu baten luzapen gisa Alberto Barandiaranek *Iruñeko Udal literatur lehiaketak (1882-1928)* liburua kaleratu zuen.

Hamaika urteko ibilbidean izan zituen koordinatzaile guztientzat (Alberto Barandiaran, Edurne Elizondo, Irene Arrizurieta eta Asier Azpilikueta), kazetaritza eskola bikaina izateaz gain, Nafarroako euskal sortzaileekin eta errealitatearekin harreman bizia edukitzeko aukera bikaina gertatu zen Nafarkaria gehigarria.

Orain, digitalizatuta, ondare hori denen eskura jarri dute Euskarabideak eta Euskaltzaindiak.

Alberto Barandiaran